

# GOURMETS 2024

## BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2024ko apirilaren 22 - 25
- **Tokia:** IFEMA azoka esparrua, Madril
- **Maiztasuna:** Urtean behin
- **Norentzat:** Banaketako profesionalak (inportatzaileak, esportatzaileak, banaketa handia, HO.RE.CA. kanaleko espezialistak), ostalaritza eta jatetxeak
- **Izena emateko epea:** 2023ko urriaren 17a
- **Azokaren webgunea:** [www.gourmets.net/salon-gourmets](http://www.gourmets.net/salon-gourmets)

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **GOURMETS 2024** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du **HAZ**iren bitartez. Azoka, Bartzelona ospatuko da 2024ko apirilaren 22tik 25era.

## AZOKAREN IZAERA

Gourmets Europako Kalitatezko Elikagaien eta Edarien Azoka garrantzitsua da, eta munduko erreferente ospetsuenetako bat, gama altuko joeren erakusle horik onena aurkezten du. 36 edizioko ibilbidearekin, gero eta zifra handiagoekin eta merkataritza-espíritu garbiarekin, gehien bisitatu den plataforma da, eta gastronomia-sektoreko nazio eta nazioarteko profesionalen topaketa: jatetxeak, ostalaritza, banaketa, cateringa eta merkataritza espezializatua.

## GOURMETS DATUAK

**Erakusketa  
eremua:**

66.052 m<sup>2</sup>

**Ordutegia:**

10.00etatik  
19.00ak arte

**Erakusleak  
2023an:**

2.014  
50.000  
produktu baino  
gehiagorekin

**Bisitariak  
2023an:**

116.257  
profesionalak

# PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza Euskadin duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

## AZOKAREN AURRETIK

- Enpresaren ordezkari baten aldetik **joateko konpromisoa** eta kuota ordaintzea; beraz, Euskadiko standean sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.
- Muntatzen den egunean enpresak **derrigor egon behar** dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

## AZOKAN ZE HAR

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan **eman behar da arreta**.
- Azoka amaitzerakoan **produktu guztiak behar bezala** jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.) Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan, egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standa hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigorren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari -parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean-, zigor hori berehala jasanaraziko zaie arau haustea egin duten enpresari edo enpresei.

## AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

# PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

## PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzak 2023ko edizioaren antzeko espazioa izango du azokan.

Eusko Jaurlaritzaren standak gehieneko enpresa kopuru bat izango du. Interesa duten enpresa gehiago egonez gero, hautapena egin beharko da, izena emandako hurrenkerari zorrotz erreparatuz. Izen ematea osatuta egongo da baldin eta dokumentu guztiak aurkezten badira: ordainagiria, zinpeko aitortpena, izena emateko formularioa beteta eta zure enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren presentzia ere interesa duten enpresa kopuruaren araberakoa izango da, eta ezarritako gutxienekoa bete beharko da.

### Oharrak:

1. Stand bikoitza esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.
3. Standaren neurri zehatzak azokak segurtasun protokoloa baieztatzen duenean jakinaraziko dira.

• Stand INDIBIDUALA eredua

• Stand BIKOITZA eredua

• Stand PARTEKATUA eredua\*

\*Stand PARTEKATUAREN modalitatea kudeatuko da baldin eta gutxieneko enpresa interesdun bat badago.

# PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

## PARTE HARTZEKO KOSTUA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak EAEko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko du **GOURMETS 2024** azokan

### GARRANTZITSUA:

Stand individualen esleipena izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da, eta ezinbestekoa izango da **ordainketaren egiaztagiria**, zure enpresak **zerga-betebeharrak** eta **Gizarte Segurantzarekikoak** egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea eta **izena emate formularioa** betetzea.

Lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.



### ENPRESA MOTA 1

Batez ere Euskadiko lehengaiak hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

- **Stand partekatua:**  
1.366,85 + BEZ %21 = 1.653,88 €
- **Stand individuala:**  
2.733,69 € + BEZ %21 = 3.307,76 €
- **Stand bikoitza:**  
5.467,38 + BEZ %21 = 6.615,53 €

### ENPRESA MOTA 2

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez, eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

- **Stand partekatua:**  
2.278,08 € + BEZ %21 = 2.756,47 €
- **Stand individuala:**  
4.556,15 + BEZ %21 = 5.512,94 €
- **Stand bikoitza:**  
9.112,30 + BEZ %21 = 11.025,88 €

### ENPRESA MOTA 3

Batez ere Euskadiko lehengaiak hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.

- **Stand partekatua:**  
3.189,31 € + BEZ %21 = 3.859,06 €
- **Stand individuala:**  
6.378,61 + BEZ %21 = 7.718,12 €
- **Stand bikoitza:**  
12.757,22 + BEZ %21 = 15.436,24 €

# EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

## IZENA EMATEKO EPEA: 2023KO URRIAREN 17

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea  
Jon Zabaleta: [jzbaleta@camaragipuzkoa.com](mailto:jzbaleta@camaragipuzkoa.com)

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

### IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira zokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

[IZENA EMATEAK](#)

### KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako  
**ES49 3035-0179-61-1791069900**  
HAZI Fundazioaren izenean.

Laboral Kutxako BIC : CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena +  
GOURMETS 2024".

### ZINPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Derrigorrezkoa da enpresa eskatzaileek **Zinpeko Adierazpen** bat aurkeztea lehengaiaren jatorriari buruz, sinatuta eta zigiluarekin.

- HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

# EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

## GARRANTZITSUA

Enpresa parte-hartzaileak hautatzeko, izena emate-agiri guztiak (formularioa eta ordainagiria) jaso diren hurrenkerari jarraituko zaio. Izena emate-data, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketa egin den eguna izango da, eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadiren pabiloian parte hartzea; izen-ematea onartu dela jakinaraziko da.

**ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.**

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halaberrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

# ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

## 1 Espazio kontratatzea

Espazio batekin parte hartuko da, zeina interesa duten enpresen artean banatuko baita, azokaren antolakuntzak ezarritako osasun neurrien eta segurtasun protokoloen arabera.

## 2 Stand-aren dekorazioa

Standaren oinarrizko dekorazioa eta altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko erakustokiko erakusketari guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

- Mahai 1 eta 4 aulki, mostradorea, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa, hozkailuarekiko biltegia eta harraska.

## 3 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Ez da itzultzeko garraiorik antolatuko.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura, eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira. Esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago.



# ESKAINITAKO ZERBITZUAK

## 4 Pabiloia mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak. Hala ere, enpresa bakoitzaren ardua izango da norbere standa garbiketa aldetik baldintza egokietan mantentzea.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

## 5 Hotz kamerak eta beste etxetresna batzuk

Enpresak eskatutako hotz ganberen edo bestelako etxetresna elektrikoen alokairua enpresak berak ordainduko du. Dena dela, Eusko Jaurlaritza enpresen esanetara egongo da zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko, eta hornitzaileak enpresari fakturatuko dio zuzenean.

## 6 Azokaren katalogo ofizialean agertzea

Eusko Jaurlaritzak behar diren tramite guztiak egingo ditu enpresa guztiak azokaren webgune ofizialean eta katalogo ofizialean ager daitezen ([izena emateko formularioan](#) jasotako datuak agertuko dira).